

Bortziritan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei dirulaguntza emateko deialdia: oinarriak

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da Bortziritan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei dirulaguntza emateko modua arautzea.

2. Dirulaguntzaren baldintzak. Bortziritan 2025. urtean Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu edo berritu duten eragileei zuzenduak dirulaguntza hauek. Dirulaguntza jasotzeko beharrezkoa da eragile eskatzaileek Bai Euskarari Elkarteari urteko faktura ordaindu izatea.

3. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31ra artekoa izanen da.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako laguntza eskuratzeko interesatuek eskaera egin behar dute, eranskinean azaltzen den eredua erabiliz. Eskaera orriarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

- IFKaren fotokopia.
- Bai Euskarari elkarteari 2025ean ordaindutako fakturaren fotokopia.
- Fakturaren ordainagiria.

Deialdiaren informazioa eta eskaera orriak nahiz eranskinak eskuragarri egonen dira mankomunitatearen webgunean eta egoitza elektronikoan:

(<https://bortziriak.eus/dirulaguntza/1080/>).

Eskaera eta dokumentazioa Bortzirieta Euskara Mankomunitatearen egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira:

(<https://egoitzaelektronikoa.bortziriak.eus/carpetaciudadana/tramite.aspx?idtramite=1521>).

Helbide honetara eramanda edo posta zertifikatuz ere aurkeztu ahalko dira: Bortzirieta Euskara Mankomunitatea, Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza. Edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

5. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

6. Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak mankomunitateko lehendakariak ebatziko ditu, euskara teknikariaren txostena ikusita. Ebazpen hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

7. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Baldintzak betetzen dituen eskatzaile bakoitzak jasoko duen dirulaguntza 45,50 eurokoa izanen da; hau da, Bai Euskarari Elkartek ziurtagiriarengatik ezarria duen oinarritzko prezioaren % 50.

Halere, eskaera guztiak batu eta mankomunitatearen 2025eko aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guztien artean banatuko da, modu berdinean.

8. Dirulaguntzaren ordainketa. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, interesatuak eskaera orrian zehaztutako kontu korrante zenbakira eginiko banku transferentzia bidez.

9. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera babestuko dira.

Datu Pertsonalak Babesteko Arautegia beterik, eskatzaileari jakinarazi nahi zaio bere datu pertsonalak Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen fitxategietan jasoko direla eskatutako zerbitzuak kudeatzeko eta mankomunitatearen berezko eginkizun legalak burutzeko. Interesdunak kontrakorik adierazten ez badu, datuak epe zehatzik gabe kontserbatuta izaten ahal dira.

Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa denean edo/eta legediak horrela agintzen duenean bere datuak Bortzirietako Euskara Mankomunitateko sail desberdinei, Nafarroako Gobernuari, eta mankomunitatearekin harremana duten bertze erakundeei, bai publikoak, bai pribatuak, komunikatuak izaten ahal dira.

Mankomunitateak ematen duen zerbitzua edo/eta dokumentu hau onartzeak erran nahi du eskatzaileak onespina eta baimen zehatza ematen duela, adierazitako helburuen baitan, bere datuak tratatzeko eta komunikatzeko. Bere esku dago sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza eskubideak erabiltzea. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatzen ahal du, baita gai honi buruzko bertze eskariren bat egin ere. Horretarako Tratamenduaren Erantzulearengana jo beharko du, helbide honetara: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza (Nafarroa) edo posta elektroniko honen bitartez: euskara@bortziriak.eus. Eskatzaileak, eskariari emandako erabakiarekin ados ez badago edo erreklamazio bat jarri nahi badu, kontrol aginte eskudunera jotzen ahal du, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa (www.agpd.es).

10. Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

11. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

EGINBIDEA:

Konstarazteko Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei dirulaguntza deialdiaren oinarriak Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2025eko urtarrilaren 28an egindako bilkura arruntean onartuak izan direla.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau ziurtatzen dut.

IDAZKARIA,

Nagore Madariaga Iriarte

**Bortzirietan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei dirulaguntzak:
eskaera orria**

 Eskatzaileari buruzko datuak

Enpresa/Elkartea	
Arduraduna	
Helbidea	
P.K.-Herria	
Telefono zenbakia	
E-posta	
Bankuko kontuaren zenbakia	IBAN _____

 Azalpena

- Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dugu.
- Ziurtagiri horrengatik dagokiguna ordaindu diogu Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteari. **Faktura eta ordainagiria bidaltzen ditugu**, eskaera orriarekin batera.
- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ziurtagiriaren gastuengatik 45,50 euroko laguntza ematen du, eskaera orri hau 2025eko urriaren 31 baino lehen aurkeztuz gero.
- **IFZ (NIF) txartelaren kopia bidaltzen dugu**, eskaera orri honekin batera.

 Eskaera

- Baldintzak betetzen ditugunez gero, mankomunitateak ziurtagiria eskuratzeagatik dagokidan laguntza eman diezagula.

(Herria)_____, 2025eko _____aren ____a

Sinatua,

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria.-
Herriko Plaza 7, 2.-
31790 Arantza.-